



Udal aldizkaria

2015eko azaroa. I. alea

“Burubelarri gabiltza proiektu berriak  
martxan jartzen”

## BI OBRA NAGUSI EGINGO DIRA

Tifanitxo eta Gizarte Zerbitzuen lokala

### AURKIBIDEA

KOMUNIKAZIOA 2

TIFANITXO ERAIKINEKO OBRAK 3

MENDIA 4

GIZARTE ZERBITZUAK 5

ORDENANTZAK 5

FERI EGUNA 6

TURISMOA 7

ADI! 7

MOTX-MOTXEAN 8

HURRENGO HITZORDUAK 8



Goizuetako Udala



## “Herritarrekin gertutasuna bilatu nahi dugu”

Udalaren komunikazio tresnak martxan daude: aldizkaria, herri batzarrak eta web orria. Idatzian, zuzeneko harremanetan eta interneten.



Goizuetako Udalaren web orria.

M a i a t z e k o hauteskundeen aurretik esan genuen bezala, Udal eta herritarren arteko harremana sendotu nahi dugu hurrengo lau urteetan. Horretarako, beharrezkoak ikusten ditugu komunikaziorako tresna berriak martxan jartzea. Beraz, pixkanaka, elikatuz joango gara Goizuetako udalaren web-orri berria eta Goizueta informatzen aldizkaria.

Web-orriari begira, eguneratua mantenduko dugu

eta ohikoa den informazioa eta albisteak bertan argitaratuko ditugu. Horretarako, [www.goizueta.eus](http://www.goizueta.eus) atarian sartu besterik ez duzu egin behar.

[www.goizueta.eus](http://www.goizueta.eus)  
ataria izango da  
Goizuetako Udalaren  
web orri berria.

Aldizkariari begira, hiru hilabetetik kaleratuko dugu eta udaleko azken gertakari nagusienak bilduko ditugu bertan.

Baliabide hauez gain, herri batzarrak ere egingo ditugu lau-bost hilabetetik. Bertan, informazioa zuzenean trukatzeko aukera izango du nahi duen orok.

Elkarrekin lana erazago egingo dugulakoan, agur bero bat eta ongi etorri Goizuetarron txoko berrira!

## Tifanitxo eraikineko obrak

Zuetariko gehienak, Tifanitxora, dantzara edo zinema emanaldietara joango zineten. Gazteagoak zaretenak, Gaztetxe modura ezagutu izango duzue. Edozein kasutan, Goizuetarron oroitzen franko gordetzen dituzte Tifanitxoko lau hormek.

Begibistakoa da azken urteetan okerrera egin duela eraikinaren egoerak eta Udalak, eraikinaren egoeraren jakitun, aurreko udal taldeak hasiera eman zion zaharberritze proiektuari jarraipena emango dio. Horretarako, 68.000€-ko inbertsioa egingo dugu eraikinaren lau hormak eta teilatua berritzeko.

Kanpoko obra hauek, martxoan hastea aurreikusten da eta bi hilabeteetan bukatzea. Baina zer

gertatzen da barrukoarekin? Eraikina kanpotik ez ezik, barrutik ere berritzeko momentua dela uste dugu. Orain artean bezala, eraikinak, erabilera publiko eta herritarra izaten jarraitzea denez Udalaren asmoa, beste hainbat herriko txoko berritu diren gisan (labaderoa, Umore-Ona Elkarte...), Tifanitxo ere auzolanaren bidez berritzeko nahikoa indar badugula uste dugu.

Tifanitxok, gaur egun duen erabilera baino gehiago izan dezakeenez, bertan, beren jarduera burutzeko txoko bat izan nahiko luketen orori, deialdia zabalitzen diogu udalera beren berri emateko. Horretarako, azaroak 4tik 25era idatzi bat aurkeztu beharko dute Udaletxean, ber-

tan zehaztu beharrekoa hauxe izanik: nork egiten duen eskaera, zer erabilera eman nahiko liokeen, gune horretan ze behar edukiko lukeen (mahaiak, apalak, arraska...) eta interesgarri iruditzen zaion beste edozelako informazioa. Guzti honekin espazioa ahalik eta modu egokienean antolatzen saiatuko gara eraikinari ahalik eta erabilera anitzena emanaz.

Ikusten duzuen bezala, lan asko dugu aurretik. Baina Goizuetarrok ongi dakigu elkarlanari esker nolako emaitzak lortu ditzakegun. Beraz, Goizuetari bizitasuna emango dion topagune honetan, badugu zereginik auzolanen geroa eriteko!



“Eraikinean lokala eskatzeko epea zabalik dago”

“Obrak martxoan hastea aurreikusten da”



## Udalaren mendi ustiapena

Mendia, udalaren diru iturri nagusi izan da azken urteetan eta horren eraginez, udal aurrekontuan pisu eta zentralitate handia izan duen atala. Guzti honengatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu zuek jakitea zenbat inbertitzen duen eta zenbat jasotzen duen Goizuetak mendi ustiapenetik:

-Gaztaotza inguruetan 85.032,19€-ko inbertsioa egin da birlandaketan. Raul Gonzalez adjudikatu zitzaion lana 2014ean eta lanaren zatirik handiena aurten egin da.

-Hiru enpresen artean egin dituzte udako garbiketak eta 28.235,35€ kostatu da.

-Etxolla Azpia, Añarbe Gaina eta Zontzorroitz Euteratik egurra ateratzeko subasta desertu geratu ondoren, bigarren deialdian ofertak jasotzeko zain gaude. Lizitazio prezioa 295.970,81€ da (BEZ gabe).

-Burugorri inguruetak birlandaketan 79.847,80€ inbertituko ditu Udalak eta lanak Oihan Zerbitzuak SL enpresak egingo ditu.

Fusarium gaitzak Goizuetako mendiari eragin dion kaltearen eraginez, menditik dirurik sartuko ez diren urteak etorriko zaizkigu. Gure iritziz, mendian inbertsioak egiten jarraitu behar da hala ere, eta aldi berean mendiak eskaini ditzakeen erabilera berriak aztertzeari ekin.

Aipatu baita ere, herritarrek sutarako erabiltzen duten egur lotea ateratzea 8.530,50€ kostatu zitzaion 2015ean Udalari. Eskatzaileei kobratzen zaiena, kostu horren arabera da.



Burugorriko ikuspegia iparraldetik.



Burugorriko ikuspegia hegoaldetik.

## Gizarte Zerbitzuen lokala berrituko da

Aspaldidanik kezu ziren Gizarte Zerbitzuetako langile eta erabiltzaileak medikuaren etxea ez zegoela egoera onean, eraikina zaharra zela eta arreta jasotzera joaten zirenek arkitektura oztopoei aurre egin behar izaten zirela. Guzti hau ikusirik, aurreko udal korporazioak zerbitzu hau emateko beste lokal bat egokitzea erabaki zuen.

Presako etxeetan Udalak duen bajua prestatzea, borobilduz, 36.300€ kostatu da eta gastu honi aurre egiteko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen (Arano, Leitza, Areso eta Goizueta) eta La Caixa-ren dirulaguntza jaso dugu.


Obra, Elamako Eraikuntzak SL enpresak eramango du aurrera, Idoia Legarreta arkitektoaren gidaritzapean. Lokal berriak arretarako bi bulego izango ditu eta ahalik eta arkitektura oztopo gutxien izan ditzan, hori kontutan hartuta diseinatu da. Urte hasierarako prest egotea espero dugu.



Aipatu, Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak 25 urte bete dituela aurten eta mende laurdena ospatzeko, jaialdi bat antolatu zutela Leitza.

## Aldatu diren ordenantzak

Behin-behinean aldatu ditugu ondorengo ordenantza hauek:



“Agiriak eman eta tramitatzeko tasak arautzen dituen ordenantza”: Herritar batzuen proposamenez, dokumentuak konpultsatzeagatik udalak kobratzen zuen tasa ezabatzea erabaki dugu, ikusirik beste Administrazio askotan doakoak direla.



“Herriko bideak eta mendiko pistak erabiltzeagatik eskubideak eta tasak arautzen dituen ordenantza”: Karga haundiko kamioiak bide hauek erabili ondoren behar bezala utzi ditzaten bermatzeko, fidantza bat eskatuko du Udalak, bideak behar bezela uzten badira itzuliko dena eta halakorik gertatu ezean, pistak konpontzeko erabiliko dena.



“Udal lokalen erabilera-ri buruzko ordenantza”: Erabilera arautzeaz gain, tasa bat ezarri dugu lokalen erabileratik etekin ekonomikoa ateratzen duenarentzat, lokalen mantenimendu kostuei aurre egiteko. Aldiz, irabazi asmorik ez duen erabiltzaileak ez du tasa ordaindu beharko.





GOIZUETAko XII.  
azienda  
artisau  
nekazal **FERIA**  
2015/XI/28 larunbata

10:00-13:00

Azienda, nekazal eta artisau feria

Trikitolariak, joaregileak, sagardogileak, txurrogileak, sifoia, kuadro erakusketa labaderoan...

11:00 Ardi erakustaldia

12:30 Inaxio Perurena harri-jasotzailearen erakustaldia

14:00 Bazkaria

Txartelak "Amaia" kafetegian

8 urtetik beherakoek doan

9-16 urtekoek 10€

ikasle-langabetuek 18€

langileek 21€

18:30 Poteoa "Elutxa" txarangarekin

Antolatzaileak: Kultur Taldea, Gazte Asanblada, "Gurasoak" G.E., Umore Ona Elkarte

Laguntzailea: Goizuetako Udala

## Turismoa

### Artikutzako Burdinolen ibilbide homologatua

**A**rtikutzako parajeetan dagoen Burdinolen ibilbidea homologatzeko azken pausoetan gabilta. Goizuetako Udalak FENDE mendi federazioaren baliadzea bultzatu du, Donostiako Udalaren laguntzarekin. Seinaleak eta panel informatiboak jarri dira ibilbidearen berri emateko. Bertan, puntu hauek markatuko dira: Arriurdineta, Elamako burdinola, Labeta, Goizaringo burdinola, Soroaundi eta aparkalekua. Aurrera begira, Goizuetatik Artikutzaraino doan bidea homologatzen ahaleginduko gara.



Artikutzako ibilbidea



### Zakurren kakak jaso egin behar dira



**H**ainbat kexa jaso ondoren, herrian ibiltzen diren zakurrak lotuta edota beren jabeekin ibili daitezten eskatzen dugu. Aldi berean, herriko kaleak garbi mantentzearen aldeko deia ere egiten dugu eta horretarako, zakurrak sortutako zikinkeriak jaso ditzazuen eskatzen dugu. Behar duenarentzako eskuragarri daude poltsak udaletxean.

### Animaliak ezin dira libre ibili herrian



**B**este behin ere oroitarazi nahi dizuegu, zakurrez gain, beste animaliak ere ezin direla herrian libre ibili. Beraz, azienda bakoi-tzaren jabea arduratu dadila bere animaliak gobernatzeaz!

# MOTX-MOTXEAN

## UNAI ETA OLAIA AUDIENTZIA NAZIONALEAN

Amabirjin jaietako txupinazoaren ondorengo brindisean Iñigo Elizegi zoriontzeagatik epaitegira zitatuak izan ziren Madrilgo Auzitegi Nazionalean. Oinarririk gabeko akusazioa zela ikusita, kasua artxibatu dute. Honen arira, EHBilduko Nafarroako alkateek maiatzeko hauteskundearen ondorengo jasaten ari diren egoera salatu dute, Goizuetakoa, ez baita kasu bakarra izan. Tafalla, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Irunberrin ere Madrilera joateko zitatuak izan dira.



## HELBIDE ELEKTRONIKOAK: .EUS

Goizuetako Udalak, euskara eta euskal kulturaren aldeko apustua egiten du eta horregatik, interneten ere gure konpromisoa hartu dugu gure domeinua .EUS-era aldatuz. .EUS domeinuak, euskara, beste hizkuntzen maila berean kokatzen du. Hemendik aurrera, [www.goizueta.eus](http://www.goizueta.eus), [udala@goizueta.eus](mailto:udala@goizueta.eus), [idazkaria@goizueta.eus](mailto:idazkaria@goizueta.eus) eta [alkatea@goizueta.eus](mailto:alkatea@goizueta.eus) helbideen bidez egongo gara sarean.



## HAUTESKUNDE OROKORRAK

Abenduaren 20ko hauteskundera begira, Nafarroako Gobernuko alderdiak, Geroa Bai, EHBildu, Ezkerra eta Ahal Dugu batera aurkeztuko dira Senatura. Lau alderdiek, Nafarroaren aldaketarako gobernu akordioa izenpetu dute. Kongresurako, EHBilduk herriz herri egindako batzarretan, Sabino Cuadra izan da bozkatuena Nafarroako. Azpimarratu dute, euskal gizarteari babesa eskatuko diotela, Madrilera joan eta ozen esateko, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarrok erabakiko dugula, hemen, gure herrian”.



## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da. Gurekin batera, ekintzetan parte har-tzera gonbidatzen zaitugu. Arratsaldeko 7etan kontzentra egingo da plazan. Aurtengo Nafarroako Udaltako kanpainaren lema hau izango da: emakumeenganako eta neskeenganako indarkeria guztien aurka.



## HURRENGO HITZORDUAK

**2015-11-25** Azken eguna Tifani-txon lokal eskaerak egiteko.

**2015-11-25** 19:00. Kontzentrazioa plazan: emakumeenganako eta neskeenganako indarkeria guztien aurka.

**2015-11-27** 19:00. “Amama” pelikula ganbaran. Azaro Kulturalaren baitan. Sarrera: 2€

**2015-11-28** Azienda, artisa eta nekazal feria. Azaro Kulturalaren baitan.

**2015-12-03** Nafarroa eta Euskararen eguna.

**2015-12-17** 18:00 “Birjinak ala putak” liburuen aurkezpena jangelan.

**2015-12-20** Hauteskunde Orokorrak.

**2016-01-09** 17:00. “Euskal Presoak Euskal Herrira” manifestazioa.